


Tomas Etxaniz Mendiguren Jna.
EZKIOKO HERRI BATZARRA
20709 Ezkio-Itsaso



Gaia: Ezkioko Herri Batzarrak "Udalerrri Independentea eratzeko Itsasoren banaketa espedienterako" aurkeztutako ekarpenari erantzunez,

Honaink...
2015 AZA. 11

Itsason, 2015eko azaroaren 11an

Jaun/Andere agurgarri horiek:

Ezkio-Itsasoko Udalaren Osoko Bilkurak, 2015eko uztailaren 29ko Ezohiko Batzarrean erabakitakoaren arabera, Itsaso Bherria Elkarte Eragileak aurkeztutako "Udalerrri independentea eratzeko Itsasoren banaketa espedienterako" dokumentazioa jendaurrean ipini ondoren, Ezkioko Herri Batzarrak bere ekarpena egin du espediente horretarako eta ondorengo eskatu:

- 1- Ezkioko Herri Batzarrak 2015eko urriaren 19an Ezkio-Itsasoko Udalean aurkeztutako idatzia, banaketa-espedientera ekarpen gisa gehitzea eta,
- 2- Idatzi bera Ezkio-Itsasoko Udalaren webgunean zintzilikatzea, banaketa prozedurarako atalean dauden dokumentuekin batera.

Eskaera horren aurrean Itsaso Bherria Elkarte Eragileak honakoa adierazten du:


Egokia kontsideratzen duela Ezkioko Herri Batzarrak aurkeztutako idatzia Itsasoren banaketarako espedientera gehitzea, baita Ezkio-Itsasoko Udalak bere webgunean idatzi hori argitaratzea ere.

Besterik gabe, zuen arreta eskertuz eta adeitasun osoz,

ITSASO BHERRIA ELKARTE ERAGILEA

Mathias Aizpurua Begiristain

Udal langileak
EZKIO-ITSASOKO UDALA
20709 Ezkio-Itsaso



Gaia: Ezkio Itsasoko udal langileek "Udalerrin independentea eratzeke Itsasoren banaketa espedienterako" aurkeztutako adierazpen-idatziari erantzunez,

2015eko azaroaren 11an

Jaun/Andere agurgarri horiek:

Ezkio-Itsasoko Udalaren Osoko Bilkurak, 2015eko uztailaren 29ko Ezohiko Batzarrean erabakitakoaren arabera, Itsaso Bherria Elkarte Eragileak aurkeztutako "Udalerrin independentea eratzeke Itsasoren banaketa espedienterako" dokumentazioa jendaurrean ipini ondoren, Ezkio-Itsasoko Udaleko langileek aurkeztutako adierazpen-idatziarekiko, honakoa adierazi nahi du Itsaso Bherria Elkarte Eragileak:

- 1- Itsasoren bereizketak egungo Ezkio-Itsasoko Udalaren antolaketan eta bertako udal langileengan eragiten duen neurrian, guztiz ulergarria dela adierazitako kezka. Izan ere, banaketaren bideragarritasun ekonomikoa aztertze aldera, hipotesi batean oinarritu beharrak, datu batzuk landu behar izan dituela.
- 2- Baina Itsaso Bherria Elkartearen nahia dela Ezkio-Itsasoko Udalaren oraingo udal langile bakoitzaren lan baldintzak mantentzea.
- 3- Egokia eta beharrezkoa kontsideratzen dela, udal langileengan eragina izango duten alderdi eta erabaki guztien informazioa udal langileekin partekatzea eta adostea, Espedientean jaso den bezala (6.b.5 atalean): "Ezkio-Itsaso udalerritik bereizi eta 8 hilabeteko epean, Itsasoko Udaleko eta Ezkioko Udaleko lanpostuak eta udal langileak zein izango diren adostu. Horretarako, Itsasoko Udalak bere ohiko funtzionamendurako giza baliabideen aldetik izango dituen beharren azterketa zehatz bat egin eta udal langileak kontratatzeke jarraitu behar duen prozedura zehaztu beharko da. Proposatzen da ere, Itsasoko Udala, Ezkioko Udala eta gaur egun Ezkio-Itsasoko Udalekoak diren langileen ordezkaritzarekin osatutako batzordea eratzea. Batzorde horren helburua, udal bakoitzak dituen beharren arabera, bi udalen artean baliabideak partekatzeke planteamendu bat landu eta gaur egungo udal langileen adostasuna lortzea izango da, beti ere gaur egun langile horiek dituzten eskubideak beteko direla bermatuz." Eta hurrengo puntuan "Itsasoko Udalak egin beharreko langileen kontrataziorako prozedura abian jarri eta gauzatzea".

Besterik gabe, zuen arreta eskertuz eta adeitasun osoz,

ITSASO BHERRIA ELKARTE ERAGILEA

Mathias Aizpurua Begiristain

Mathias